

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

**INFERNUKO LANTEGIA HUSTEKO MODUA ETA KONFINAMENDU GARAIAN
PERTSONAK KALERATZEAREA DELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2020ko azaroaren 16an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 4ko gauean, Infernuko bizilagunek jakinarazi ziguten Ertzaintza jendea ateratzen ari zela hango lantegi batetik, hainbat pertsona bizi ziren lekutik. Hara joan eta ikusi genuen haien ondasunak ateratzeko esaten ari zitzaizkiela ertzainak bertako pertsonen, nahiz eta 23:00ak pasatuak izan eta bat ere kontuan ez hartu lehendakariak 2020ko urriaren 26an emandako 36/2020 Dekretuak eta 2020ko urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak, SARS-CoV-2aren kutsadura ez zabaltzeko alarma egoera adierazi zuenak, zer neurri zekarten, 23:00etatik 06:00etara etxean izateko agindua emanda baitzegoen garai hartan.

Kontraesan bat baino gehiago ikusi dugu Udaltzaren jardunean. Esate baterako, hilaren 4an, Gizarte Ekintzako zinegotziak esan zuen ez zekiela operatiboa zenik, eta ez zela Udaltzaren eskumenekoa. Hilaren 5ean, berriz, udaltzainak aritu ziren etxerik gabeko pertsonen haien ondasunak fabrikatik jaso eta ateratzen laguntzen.

Gainera, ez diete beste bizitokirik eskaini lantegitik aterarazitako pertsonen, eta hirugarren sektoreko erakunde batzuen esku utzi dituzte (Harrera sarea, Caritas, Arrats, Sos Arrazakeria...) haien osasun eta elikadura beharrak, nahiz eta osasun larrialdian izan eta Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuak jartzen duen gizarte-bazterkerian den edozein pertsonari kasu egin behar zaiola, hartarako eskubide subjektibo eta unibertsalak duelako.

Azaroaren 16ko batzordeetan egindako interpelazioei erantzunez, Gizarte Ekintzako delegatuak adierazi zuen Udaltzaren gizarte zerbitzuek kalean geratutako pertsonak artatu zituztela. Baina datu objektiboak erreparatzen badiegu, azaroaren 5an Alderdi Ederreko parkeetan Infernutik kaleratutako 20 bat pertsona zebiltzan noraezean eta Harrera Sareko kideak izan ziren haien behar emozionalak eta elikadura beharrak kudeatu eta asetu zituztenak.

Bestetik, Segurtasuneko delegatuak esan zuen bere sailak bazekiela kaleratzea egongo zela eta Udaltzaren ez duela eskumenik horrelako agindu judizial bat gelditzeko. Gauzak horrela, ezin dugu ulertu Udaltzaren aldetik kaleratzearen aurrean interbentzio sozial bat martxan ez jartzea, oraingo egoera sozio-sanitarioa kontuan hartuta eta operatiboan bakarrik udaltzainek parte hartzea, eta ez gizarte zerbitzuetako

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

teknikariek (kontuan izanda Infernuan bizi ziren pertsonekin hilabeteetan lanean ibili direla).

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, kaleratzeen aurrean, bitartekaritza lana egin dezala jabe pribatuekin inor babesgabezia egoeran geldi ez dadin, batez ere alarma egoeran eta etxeratze agindu egoeran gaudela kontuan izanda.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostian bizi diren pertsona guztien segurtasun eta ongizate beharrak bermatzeko ahalegina egin dezala, COVID19aren ondorioz aplikatu behar diren prebentzio neurrien testuinguruan bereziki, eta kontuan hartu gabe pertsona horien jatorria edo egoera soziala.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hirian kaleratze bat egon behar dela dakienean, Udaltzaingoaren eta Gizarte Ekintza sailaren arteko esku-hartze bateratua abiatu dezala.

Donostian, 2020ko azaroaren 20an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia